

«Egungo Txotx mahaiko planteamendua» kritikatu du EAJk

Kronika - Erredakzioa 2024ko mar. 18a, 00:00

Entzun ▶



Sagarra eta sagardoa erdigunean jarri behar direla dio Andoni Amonarraizek: «Gure aldetik, proposamenak helarazi ditugu, besteak beste, elaborazio gazi eta gozoen erakusketak».

«20 urte baino gehiago dira Txotx mahaiko kide naizela, orain sagardoarena, eta ez dut ulertu zergatik bildu diren Hernaniko eta Astigarragako EH Bildu Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Txotx garaiak sortzen dituen arazoei konponbidea emateko argudiatuta. Ez dut ulertu», hausnartu du EAJko bozeramailea den Andoni Amonarraizek.

Amonarraizek dio «baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak» ditugula: «herriaren irudia hobetzeko asmoa dago eta gure kasuan sagardoa eta sagarra, Txotx denboraldiak sortzen dituen arazoetatik banatu nahian gabiltza, proposamenak egiten. Aldaketa horren elementu nagusia sagarra eta sagardoa erdigunean jartzea da, modu honetara, Hernani gure inguruko beste produktu batzuekiko ezagutza eta bizikidetza eremu bihurtu dadin; besteak beste ondorengoak proposatu izan dugu, sagardoa eta arraina, elaborazio gazi eta gozoen erakusketak, produktu deribatuen erakusketak sagarra (zukua, sagardoa, alkoholak, etab.), eta munduko sagardoetara irekitzea». Eta Amonarraizek gehitu du, «bide hau dagoeneko irekita» zegoela.

Alderdi jeltzaleko bozeramaileak sagardoaren mahaia gaur egun duen planteamendua kritikatu du: «Txotx denboraldiko gatazkaz hitz egiten ari da soilik, eta hau nola konpondu, eta EAJren aldetik, uste dugu ez dela onargarria. Lau urtean behin, atzera egiten dugu, gure herria sagarrari eta sagardoari lotutako kulturgunea bihurtzeko beharrezko bitartekoak lortzen saiatzen. Eusko Jaurlaritzari eta Aldundiari eska dakiokegu helburu hori lortzeko laguntza ematea, bai. Baina ez Txotx garaiak sortzen dituen arazoei soluzioa ematea, izan ere, azken 15-20 urteetan ezta udal gobernu batek ere ez du jakin txotx denboraldiko arazoa konpontzen. Gainera, badirudi EH Bilduk erantzukizunak kendu nahi dituela gainetatik eta gai horietan eskumenik ez duten beste erakunde batzuei eman nahi dizkiela».

Amaitzeko, Amonarraizek lanean jarraitu behar dela azpimarratu du: «Joan den legegintzaldian erabaki genuena lantzen jarraitu behar da, eta emaitzak oso denbora gutxira etorriko dira».

[Gizartea Hernani](#)

Kronika egunero, euskaraz eta doan jasotzen segi ahal izateko, Kronikakide gehiago behar dira, eta zer esanik ez, proiektu komunikatibo sendo eta profesional bat garatu nahi badugu.



Ikusienak



[Lizeaga Jaiak bertan behera geratu dira, Urumea ikastolako obrak eta taldekide baten heriotza tarteko](#)

Kronika - Erredakzioa
ira 02, 00:00 [Hernani](#)



[Portuko Jaiak-Irailak 1](#)

[Iruditan](#)
Kronika - Erredakzioa
ira 02, 09:26 [Hernani](#)



[Portuko Jaiak-Abuztuak 31](#)

[Iruditan](#)
Kronika - Erredakzioa
ira 02, 09:12 [Hernani](#)



[Azken trakarekin agurtu zituzten Portuko Jaiak, giro ederrean](#)

Kronika - Erredakzioa
ira 02, 00:00 [Hernani](#)



[Irailak 8, Donostiara!](#)

Ihintza Iriarte
Apezetxea eta Iraitz
Apeztegia Arrondo
(Ernai Hernaniko kideak) ira 02, 00:00
[Hernani](#)

[Emakume hernaniar bat erasotu zuten Hernani eta Urnieta arteko bidegorrian](#)

Kronika - Erredakzioa
abu 31 [Hernani](#)

Kronika.eus

[Dobera Euskara Elkartea](#)

Larramendi kalea 11, Hernani
Tel.: 943 33 08 99 · 688 660 714 · [kronika\[ABILDUA\]kronika.eus](#)



Codesyntaxek garatua



 [Gipuzkoako Foru Aldundia](#)

 [Hernaniko Udala](#)

 [Astigarragako Udala](#)

Ereñotzuko



Auzo Udala



GOIZUETAKO UDALA



ARANOKO UDALA



Gertuko informazioa, euskaraz

AIARALDEA	AIKOR	AIURRI	ALEA	AMEZTI	ANBOTO	ANTXETA IRRATIA	ATARIA	ZUMAIA GUKA	BARREN	BEGITU
BERRIKETAN	DROGETEN ITTURRI	GUKA TELEBISTA	ERRAN	EUSKALERRIA IRRATIA	GEURIA	GOIENA	GOIERRI TELEBISTA			
GUAIXE	HIRUKA	ORIO GUKA	KRONIKA	MAILOPE	AZKOITIA GUKA	NOAUA	OIZMENDI TELEBISTA	PLAENTXIA		
		TXINTXARRI	URIOLA	AZPEITIA GUKA	28 KANALA					
		Matx	Gurean	Plazanbazan	Ttap					
			Tokikom publizitatea							